

Euskara lehenesteko urratsak Gipuzkoako Diputazioan

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskarari lehentasuna emateko proposatutako neurriek zeresan ugari eman dute azken asteotan. Batez ere bi neurrik harrotu dituzte hautsak: prentsaurrekoak euskaraz ematea eta kontratazio publikoan hizkuntza eskakizuna sartu izana. Alabaina, Diputazioaren hizkuntza politikak hori baino askoz gehiago biltzen du.

| IURE EIZAGIRRE |

GIPUZKOA lurralde euskalduna izanik –herritarren erdiek badakite eta beste %16,4k ulertzen du–, euskarari lehentasuna emateko asmoa agertu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Dagoeneko egiten ari diren barne lanaz gain, aurrerantzean aplikatuko dituzten hainbat neurri eman dute ezagutzera urrian. Neurri horietako bik zeresan eta kritika ugari eragin dute: prentsaurrekoak euskaraz emateak –gaztelaniazko aldibereko interprete zerbitzuarekin– eta kontratazio publikoen oinarrietan hizkuntza eskakizuna sartzeak.

Orain arte ele bitan egin ditu agerraldi publikoak Aldundiak eta hedabideek, oro har, gaztelaniazko hitzak erabili izan dituzte horien berri emateko. Hitzok euskara hutsean eskainita hizkuntza herritarrengana heltzea du helburu foru erakundeak. Dena den, prentsaurrekoetan gaztelaniazko aldibereko interpretea izango da eta prentsa oharrak ele bietan emango ditu aurrerantzean ere. Jarrera horrekin gaztelania baztertzen ari direla kritikatzen dute zenbaitzuk baina Aldundiko ordezkariak argi dute bi hizkuntzak ofizialak direla eta ez dutela gaztelania albo batera uzten, euskara lehenetsi baizik. Hala dio Zigor Etxeburua Aldundiko Euskara zuzendariak: “Orain arte instituzioetatik zabaldutako mezuek diote elebidunak garelako eta euskaraz gehiago egiten ez bada euskaldunen



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Hemendik aurrera Diputazioak bere prentsaurrekoetan euskara lehenetsiko du. Argazkian, Helena Franco eta Larraitz Ugarte diputatuak neurria gauzatu baino lehenagoko prentsaurrekoan.

erruagatik dela. Hori ez da egia: euskaldunak euskara erabili nahi du baina ezin du, trabak eta debekuak dituelako, eta solaskide askok ez dakielako. Guk euskara erabiltzeko hautua egin dugu eta egungo egoera zein den jakinda, interprete zerbitzua eskaini dugu”.

Euskara lehenesteko, herritarrekin harremana euskaraz edukitzeko presatuak egon daitezen eskatuko die Aldundiak bere izenean ariko diren

enpresei eta lanaren arabera hizkuntza eskakizunak ezarriko ditu. Esaterako, GI-632 errepidean Antzuola-Bergara zatia egiteko kontratuaren baldintzen artean jarri zuen obrako zuzendariari laguntza teknikoa emango dion taldeko bi kidek, gutxienez, EGA edo titulazio balio-kideko euskara maila egiaztatzea, eta hain justu, enpresa bat esleipenetik kanpo geratu zen baldintza hori betetzen ez zuelako.



Foru aldundiak Udala <>ekin programa dauka abian Gipuzkoako hainbat udalekin. Argazkian, hogei udaletako ordezkariak eta Foru Aldundiko Euskara zuzendari Zigor Etxeburua (hizlari).

Euskara ez dela inposatu behar, neurri hori baztergarria dela, Aldundiak naziek bezala jokatzeko duela edo hizkuntza eskakizunaren irizpide horrekin Europako merkatu bakarreko enpresek duten lehia askeko araudia urratzen ari litekeela adierazi dute, besteak beste, hainbat alderditako politikariek. Aldundiak bere jarrera berretsi du, neurrien atzean aurreko Diputatuen Kontseiluak onartutako foru dekretu bat dagoela argudiatuta. “EGA eskatu izana leporatu digute. Tituluaren zehaztasuna ez dago jasota foru dekretuan, herritarrei zerbitzua euskaraz emango zaiela ziurtatu behar dela dio legeak, baina lan jakin batzuetarako gaitasun jakin batzuk eskatzen dira eta hala egin dugu. Iruditzen zitzaigun pertsona batek zuzentasun nahikoa izan behar zuela euskaraz maila tekniko horretan ere”, gaineratu du Etxeburua.

Azken asteotako kritiken aurrean bi ikuspegi bereizi ditu Aldundiko Euskara zuzendariak: euskararen garapenaren kontra dauden aldetik jasotakoak eta euskararen alde daudenengandik jasotakoak. Lehenengoi esker argi geratu ei da euskaldunok bizi

dugun egoera: ez dugu nahikoa burujabetza euskaraz bizi, gure erabakiak hartu eta aplikatzeko. “Iruditzen zaigu ez direla ari Aldundiaren kontra, euskaldunon, euskaraz bizi nahi dugunon aurka baizik. Eta horren aurrean harresia eraiki eta ez dugula onartzen esan behar diegu”, dio. Aldi berean, bidegabe eta iraingarritzat jo du euskararen garapenaren aldekoek hizkuntzaren inposizioaz aritu izana, eta euskaraz bizitzeko nahikoa uste sendo ez dutela iritzi dio.

Zerbitzuak euskaraz 2015erako

Ez da Aldundiaren –Bilduren gobernupean iaztik– erabakien inguruan horrelako eztabaida sortzen den lehen aldia, antzeko zerbitzu gertatu baitzen errenta aitopenen kanpaina baliatuta, administrazioarekin harremana euskaraz izan nahi duten gipuzkoarren zerrenda osatuko zuela iragarri zuenean. Orain eman dira argitara egitasmo haren emaitzak: aurtun 49.234 pertsonak eskatu dute Ogasunarekin euskaraz aritzea eta 643 enpresek Aldundiarekin hizkuntza bera erabiltzea.

Etxeburuaren esanetan, emaitzak ez dira bikainak eta jendeak atzera

Hizkuntza, guztion ardura

EUSKARA barneko hizkuntza bihurtzearekin batera, eragile izaera mantendu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta horretarako udalak ditu aliatu nagusi. *Udala <>ekin* programa gauzatzen du horietako batzuekin.

Legegintzaldi honetan egitasmoan parte hartzen duten udalak tamainaren eta egoera soziolinguistikoaren arabera banatu dira. Diagnostiko partekatua egin dute, dituzten arazoak eta irtenbideak elkarrekin lantzeko. Udala txikiak euskararen erabilera kalean eta gurasoek haurren hizkuntza erabileran duten eragina izan dute kezka; ertainek agintariek hizkuntza irizpideak bere egin eta udal kontratazioetan aintzat hartzeko beharra; eta handiek, berriz, lan-lekuan gaztelaniaz egiteko ohitura. Landutakoa lurraldeko gainerako udalen eskura jartzea da asmoa.

Euskara ez da, ordea, teknikarien kontua bakarrik eta aldundia udal ordezkarien inplikazioa lortzen saiatu da. Ideiak hasieran arrakasta izan bazuen ere, gero ez du jarraipenik izan. Orain pauso berri bat emango du ildo horretan: udaletako eta aldundiko euskararen ordezkarien mahai politikoa eratzea. *Udala <>ekin* egitasmoari eta gainerako beharrei erreparatzea eta jarraipena egitea izango da horren zeregina.

egin du Ogasunak Aldundiari datuak laga izaganatik. Horregatik, herritarrei beren hizkuntza hautua zuzenean galdetuko die foru erakundeak. Euskaldunari zerbitzua eskaintzen dionak ere euskalduna behar duenaren jakitun, errenta aitopenen kanpaina euskarazko hirugarren hizkuntza eskakizuna zuten 83 pertsona kontratatatu zituen Aldundiak lehen aldiz. 2015erako zerbitzuak euskaraz eskaintzeko

erronkaren harira hartu ditu bi neurriok erakundeak.

Euskara, lan-hizkuntza

Kalean hainbestetan errepikatzen den egoera dago Aldundi barruan ere: langileek euskara ezagutzen dute (%17 dira euskara gaitasunik ez dutenak) baina gaztelaniaz egiten dute lan. Beraz, euskarari lehentasuna emateko bidean, euskara lan-hizkuntza bihurtzeko prozesua azkartzea da beste helburuetako bat. Horretarako plangintza intentsiboak egiten ari da bost zerbitzutan.

Legegintzaldi berrian zerbitziburu eta idazkari teknikoak aldatu egin dira, eta euskararen ezagutza eskatu zaie. Horri esker, departamentu gehienetako arduradunak euskaldunak dira. Barne-bilerak euskaraz egin ahal izatea ahalbidetu du horrek eta protokoloa ere ari da sortzen Aldundia: euskaraz mintzatu ezin baina ulertzen duenak, gaztelaniaz hitz egin dezake bileretan baina gainerakoek euskaraz jarraitu dute.

Neurri horiek guztiak hasi dira dagoeneko emaitzak ematen. Horren erakusle euskaratik gaztelaniara itzuli beharreko testuen kopuruak gora egin izana.

Gipuzkoako Foru Aldundia bakarrik

Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Gipuzkoa zioen erakundearen irudi korporatiboak aurreko legegintzaldian. Itxura ez ezik, hizkuntza irizpideak ere aldatu dira eta gaur egun euskarazko hitzak baino ez dira ageri irudi korporatibo nagusian. Gaztelania ez da desagertu baina bigarren mailara pasa, eta departamenduen eta zuzendaritzen aipamena egiteko erabiliko da, euskararekin batera. Etxeburuaren hitzetan, “gure iru-

Irudi korporatiboan Diputazioak euskarazko izena baino ez du eramango. Departamentuetan eta zuzendaritzetan euskara lehenetsiko da.

diak islatu egin behar du berezko hizkuntza, lehentasunezkoa, euskara dela”.

Foru dekretu berria

Aurten iraungiko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen foru dekretua eta dagoeneko berria prestatzen ari dira. Orain artekoa dekretu ona dela aitortu badu ere, Euskara zuzendariak adierazi du hobetu egingo dutela. Maila politikoko berrikuntzak izango dira, nagusiki.

“Iruditzen zaigu ez direla ari Aldundiaren kontra, euskaldunon, euskaraz bizi nahi dugunon aurka baizik”

Zigor Etxeburua,
Euskara zuzendaria

Aldundian euskara berezko eta lehentasunezko hizkuntza dela esplizituki jaso nahi dute dekretuan. Zenbait neurri ideia horretan oina-

rrituz hartzen direla argituko dute. Euskararen erabilera indartzeko lehenago aipatutako neurri horiek ere islatuko dituzte dekretuan.

Orain eskuartean duen beste egitasmo bat ere agertuko da dekretuan: edozein ekintzak ingurune batean izan dezakeen inpaktu linguistikoa azterketa. Azpiegiturek, lanek edo berrikuntzek herri bateko euskararen erabilera zein eragin duen aztertuko du Aldundiak. Demagun, herri txiki euskaldun batean hainbat etxe atxiki egiten dituztela. Horrek kanpoko jendea hara bizitzera joatea eta herriko hizkuntza ohiturak aldatzea eragin lezake. Aldaketen inpaktua eta hauen aurrean har litezkeen neurri zuzentzaileak proposatuko lituzke Aldundiak modu positiboan. Beste herrialde batzuetan, Galesen eta Flandrian esaterako, dagoeneko egiten dira azterketa horiek. “Euskaraz bizi diren inguruak, herriak, arnasguneak zaintzea luke helburu”, azaldu du Etxeburuak. ■



Babeslea: Emun



Erronketan aurrera egiten laguntzeko gaude.

Euskara planen bidez hizkuntzak eraginkortasunez kudeatzen dituen talde profesionala gara.

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA
- EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZERBITZUAK



www.emun.com
www.lantalan.com